

IRUTXULOKO HITZA (2006-02-26)

DONOSTIA / Zinema erakusketa Marrazki bizidunen mundua hobeto ezagutzeko aukera Hiru erakusketa, tailerrak eta emanaldiak izango dira I. Animazio Erakusketan

Erredakzioa/ Marrazki bizidunen munduak tokia izango du aurten Donostian. Toon Toon Media enpresak eta Donostiako Komikiaren III. Jardunaldiek antolatuta, erakusketak, tailerrak eta film emanaldiak izango baititugu, Animatoon 2006. EAEko I. Animazio Zinemaren Erakusketa egitasmoan.

Martxoaren 1ean hasiko da erakustaldia. Animaziozko film luze baten sorkuntza, Gisaku erakusketa izango da egun horretatik martxoaren 28ra arte, Liburutegi Nagusian. Hain zuzen ere, Gisaku filma martxoaren 17an estreinatuko dute zinema aretoetan. Erakusketako kartelek animaziozko filmaren sorkuntza eta pertsonaien irudiak erakutsiko dizkigute.

Bigarren erakusketa martxoaren 31 eta apirilaren 22 bitartean egongo da ikusgai Liburutegian; Animaziozko film luze baten sorkuntza prozesua, Donkey Xote izango du izenburu. Pertsonaien diseinua modu zehatzean ikusteko aukera izango da erakusketa horretan. Donkey Xote filma ere laster estreinatuko dute zinema areto komertzialetan.

Hirugarren erakusketa, azkenik, apirilaren 28an zabalduko dute; Tim Burtonen ' La novia cadaver ' filmerako pertsonaien sorkuntza izango du izenburu. Pertsonaien eta filmaren diseinuen 110 kartel ikusteko aukera izango dugu.